


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 jaitsi ziren 2003ko uztailean

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko uztaila, 2002ko uztailarekin alderatuta) %3,1ekoa izan da.

2003ko uztailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,1 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta uztaileko urte arteko tasa %3,1era iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera. Urteko lehen zazpi hilabeteetako tasa %2,8 igo da iazko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza uztaileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldia (2003ko uztaila, 2002ko uztailarekin alderatuta), lan-eskuaren kostua %5,8 igo da eta lehengaien kostua, berriz, %1,2.

2003ko uztailean guztizko kostuak izandako %0,1eko jaitsieran eragin desberdina izan dute azpisektore nagusiek: Eraikinak azpisektoreko kostuak %0,2 jaitsi dira eta Obra Zibilekoak, berriz, ez dira aldatu aurreko hiletik (%0,0). Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran ere, modu desberdinean igo dira: Eraikineko kostuak %3,0 igo dira eta Obra Zibilekoak %3,3.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko uztailean, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: petroliotik eratorritakoak (%4,1), energia elektrikoa (%2,7), lur erreak (%0,3) eta ateratze-agregakinak (%0,3) lehengaiak. Bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitsiera izan dute honakoek: kristala (%-2,7), burdina eta altzairua (%-1,8) eta leherkariak eta gasak (%-1,6) lehengaiak, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003KO UZTAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,8	-0,1	3,1	2,8	
ERAIKINAK	123,1	-0,2	3,0	2,8	
OBRA ZIBILA	121,9	0,0	3,3	2,9	
LEHENGAIEN KOSTUA	114,7	-0,2	1,2	0,7	
ERAIKINAK	115,2	-0,3	1,1	0,7	
OBRA ZIBILA	113,5	0,1	1,6	0,8	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es